

HITZAURREA

ARGIBIDE BIBLIOGRAFIKOAK

Euskararen Historia Soziala. Argibide bibliografikoak deritzogun liburu hau “Joanes Etxeberri Bilduma”-ko estreinako alea da; orain, inprimatuta, kaleratzen duguna Internet bidez gerora eskainiko direnen lehen emanaldia da, zuzendu eta osatuz eraman beharko duguna.

Esango diren arrazoiengatik, emanaldi honek nahitaezko bere mugak izan ditu, denbora, lan-modu, lankide eta edukiz. Bi milaren bat erreferentzia izango zituela uste izan genuena 4.425 aipu-erregistroetaraino heldu da.

Liburua bi atal handitan banatuta dago: bata, idazle egileen zerrenda alfabetikoan, liburuen eta mota guztietako idazlanen aipamenak jaso ditu; bigarrenak, ostera, horietatik guztietatik jasotako gai eta terminoen bidezko kontzeptu-sorta aurkezten du. Idazle autorea zuzenean eskuratu nahi ez denean, bigarren hau izango da zerrendatutako argitalpenak gaika ezagutzeko lanabes erosoa. Bi atal hauek elkarren osagarri dira, beraz.

Oro har, *Argibide bibliografikoak* irakasle eta ikasleentzat pentsatu dugu, eta ikertzaileak ez ezik nornahi interesatuk ere izango du bertan euskararen historia sozialera (EHS) hurreratzeko laguntza bederen.

I. Bibliografia honen nondik norakoak

Autore-zerrendak eta gaien aurkibideak lehen begiratuan nolako eta zenbateko iker- eta ikas-bideak proposatzen dizkiguten ikusita, honelako albiste-gi bibliografikoek izan nahi duten iradokigarritasuna izango duela honek ere pentsatu nahi dugu, tamaina nahiko zabalean eta betiere historia sozialaren jakite-eremu hautatu honetan.

1.1. Tradizio bibliografikoan

Bibliografia eta euskara gisa eta modu anitzetan elkartu dira gure lan inprimatuen historian. Euskal Herri eta euskararekikoak ezagutu nahi izan

dituzten gehienek sentitu dute aurrekoen argitalpenak ezagutu, inguratu eta arakatu beharra; premia horri erantzuteko burutu dira lan bibliografikoak, batzuetan erabat irekiak, eta sarriagotan eremu mugatuagoetara zuzenduak. Azken hauen artean dauzkagu euskararekin zerikusia dutenak ere: euskarazkoak, noski, eta edozein hizkuntzatan gure hizkuntzaz dihardutenak ere.

Lehenik, eta adibide erosoena emateko, J. Bilbao-ren *Eusko Bibliographia* daukagu, Euskal Herria bere osoan eta alde ezberdinetatik begiratzeko lanabesa eskaintzen diguna. Hizkuntzarekiko argitalpen-albistegia ere hor dago, gainerrako euskal unibertso zabalaren barruan. J. Bilbao ez da izan, noski, lehenengo gure bibliografoa, eta tradizio estimagarri baten garapen-lana da berea. Aurrekari ezagunenak aipatzeko, gogora bitez Anjel Allendesalazar aitzindaria (1854-1885: 1885) eta Jenaro Sorarrain haren ildotik doana (1828-1898: 1891, 1898)¹. Euskal Herriaz ari ziren euskal eta erdal lanak batera bildu zituzten hauek, hizkuntzarenari berea emanez, baina gure EHS honetara iristeko ahalegin berezirik gabe.

XX. mendearen atarian eta garai bertukoa dugun Julien Vinson-ek (1843-1926: 1891, 1898) eremu hautatuago bati heldu zion, euskarazko argitalpenei, alegia: euskaraz izanik, edozein gai izan zezaketen euskarazko liburuei. Bere zabaltasun mugatuago horretan, aurrekoen gisako zera daukagu: jasotako erreferentziek (liburuek, esan nahi da) beren historia soziala dute, noski, baina beren informazio-edukiak ez datoz berariak eta espresuki EHSa ematera. Dena den, Vinson-en lanak garbi utzi zuen iraganean egondako “euskararen gertakari bibliografiko soziala” dei dezakeguna.

Vinson ez zen izan lehenengoa gertaera historiko hori azpimarratzen, eta aipatzekoak dira, inondik ere, haren aurretik bere katalogoetan berriak xeheki bildu zizkigutenak. Larramendik eman zigun lehenengo lezio handia (1690-1766: 1745ekoa), gero J. M. Zabala dator bere argitalpenarekin (1777-1840: 1828, 1856), eta, argitara gabe, Jose F. Aizkibel (1798-1864) eta J. I. Arana (1838-1896) bibliografoen lanak. Azkenik, Sarasola (1971, 1975-1976) edo Torrealdairen (1977, 1997) saioen ondoren, Torrealda beraren XX. mendeko euskarazko argitalpenen albistegi handia dugu orain eskueran.

Beste gisa bateko balioa du E. Ametzaga-ren lanak (1921-2008: 1984-1987), Euskal Herriko erdal eta euskal autoreen arabera bio-bibliografiak.

Euskal bibliografia orokor haietan bezala beste euskarazko hauetan, erreferentzia bibliografiko anitz dago gure EHSetik urrun geratzen zaiguna, baina, tar-teka, ageri da argitalpen bibliografiko honetan ere aintzakotzat hartzekoa denik;

¹ Hemendik aurrera hitzaurre honetan parentesi artean emango diren autore-izenek adibide-balioa dute bakarrik, eta ez dute, nahitaez, balioepen kritikorik, testuinguruak besterik aditzera ematen ez duen bitartean.

horregatik, iturri emaritsu horietatik franko bideratu dugu gure errota honetara, nahiz eta geratzen den oraindik iturburu beretik zer dasta eta zer edan.

Argitalpen bibliografikoetatik kanpo, euskara idatziaren historiek izan dute aukerarik literatur kritika egiteko ez ezik EHSarekin zerikusi hurbilagoa duten albisteak biltzeko. Horretan nabaria da, epe luzea jasoz eta idazlez idazle, L. Villasante-k eskaini zigun bibliografia, testuan bezala sarrera bibliografikoetan EHSerako probetxuzko asko duena (1961, 1979²); orain eta laster, azken hamarkadetakorekin osatzeko dago hori. Oraintsu Nafarroakoaz J. M. Bidador-en liburuak ere euskal idazkuntzaren alde hori arretaz begiratu du (2004).

Horiek horrela, Euskal Herriaz edo euskarari buruz berriaz ari ez direnak izan dezakete hemen leku onik, eta, hain zuzen, euskal bibliografietan agertu ez den lan teoriko eta historiko ugari ekarri dugu hona, hizkuntzei dagozkienak direlako, eta euskararenak aztertzeko lanabes teoriko baliosak ere bai.

Bestalde, nabarmentzekoa da Euskal Herriaz azken urteetan garatu den historiografia, topaketa akademikoetatik datorkiguna (adibidez, Nafarroak eta EAEk berariazko Histori Kongresuak izan baitituzte), nahiz eta normalean asmo bibliografikorik ez duten. Aitzitik, geure bibliografi eremuan, aldizkarietan baditugu berrikitaiko produkzioaren berriemate bibliografikoak (adibidez, Eusko Ikaskuntzaren *Isturitz* edo *Vasconia* sailetako argitalpenetan, edota EHUko *Historia contemporánea* aldizkariaren 7. zenbakian).

Inoiz edo bestetan ausartu dira euskal historialariak EHSaz idazten ere, eta gure aldetik saiatu gara emaitzak hona biltzen (Agirreazkuenaga biak, Izutueta, Cobreros edo Deustuan Zuzenbide eta Historiaz ari den ikertzaile-taldea), XX. mendeko aurreko belaunaldietakoak baztertu gabe (S. Mujika, A. Irigarai edo Jimeno Jurio bezalakoak, alegia). Aurrerantzean ere, Unibertsitateetako eta *Ingumako* (UEU) informazioak gogoan izango ditugu.

1. 2. Hizkuntzaren corpusetik ere

Etxeberri Egitasmoan jaiotzen ari den iker-metodologia historiko-sozio-linguistikoak aintzakotzat hartu nahi ditu *corpusaren* iragan aldakorrek euskararen historia soziala argitzeko bere baitan dakartzan analisi iradokizunak. Eredu metodologiko hori mundu bibliografiko honetara noiz eta nola eraman ikusteko dauka oraindik.

Lehen atariko bezala hizkuntzari eta literaturari buruzko XX. mendeko teoria orokorrak ez ditugu albora utzi nahi izan, eta aipatuta geratzen dira, bai hizkuntzarekikoak (Saussure 1916, Sapir, 1921, Bloomfield 1933, Chomsky 1957 eta abar), bai literatur gertakaria bere sakonean aztertu duten teorialariak (Lukács 1971, Eagleton 1983, eta beste).

Euskararen historia bere orokorrean ematen saiatu den ikertzaile eta saio-laritik ez da falta bibliografian; batzuetan hizkuntzarenetik bertatik jardun

dute, edo, guretzat berezikiago interesgarria dena, hizkuntzaren biziera soziala azpimarratu digute.

Euskarak bere baitan, barne-izaera osoan eta denboran zehar, izan duen ibilera argituko digun esku-liburu orokorrik ez dugu, dakidanez. Fonetika, gramatika, lexiko eta abarren bilakaera osoa, dena batera, nola gertatu den jakiteko orotariko liburu hori falta zaigu. Mitxelenaren *Fonetica histórica vasca* (1959) hark historiako fonetikaren lehen kapitulu hori landu zuen, baina Badiak, modu orokorragoan, katalanari eskainitako *Gramàtica històrica catalana*-ren (1951, 1981) edo frantseserako aspaldixko Brunot/Bruneau-k prestatu zizuten *Précis de grammaire historique*-ren pareko (1969) orokortasuna duen sintesirik gabe gaude oraingoz. Hala ere eta atalka izan arren, hizkuntzaren barne-diakronia ez dago orrialde bibliografiko hauetatik at, hain zuzen horrelako prozesu batek jaso ditzakeen oihartzun sozialak ez galtzearen.

Gurean, sarriago hizkuntzaren barne-izaera bere sinkronian begiratu da, horregatik ere hemen behar dugun ikuspuntu historikotik urrun gertatuz: Lafon (1972), Mitxelena (1977), Trask (1997) edo Rebuschi (1998) datozkit gogora, gramatikari andanarekin batera (ik. "Gramatika. Gramatikariak"). Baina beude, gure artean zein hizkuntza-moldez ari garen jakiteko.

Hurbilago geratzen zaizkigu ikerlan dialektologikoak, zeharbidez bada ere, hizkuntzaren geografia ezagutu eta *corpus*aren lurraldeko banaketa erakusten digutelako. Aspalditik esan da gurean euskalkien banaketak garairen bateko antolaera sozialean zuela bere jatorria; nekez begira daiteke gure iragan soziolinguistikoa Bonaparte, Broca edo Irigarairen kartografiarik gabe. Irakurleak berehala ikusi ahal izango du aurkibideko "Euskalkiak" edo "Dialektologia" sarrerak nahiko hornituak daudela.

Beren lekukotasunean, hizkuntzalaritzak ikertu dituenen aurretik dago, noski, euskararen testuen zerrenda, apurka-apurka osatuz doana. XVI.etik honakoak ditugu batez ere, baina lehenagokoek halako erakargarritasun bixia dute, ordea. Testu zaharragoak bezala geroko zenbait sakabanatu bi liburutan dauzkagu bildu samarturik (Mitxelena/Sarasola 1990; Satrustegi, 1987). Oro har, bibliografia honetako "Testuak" sarrerak ere lagunduko du horrelakoak gogoratzen.

Euskararen *corpus*-a ez da izan gure bilketa bibliografiko honetan berezikiago interesatu zaiguna, baina nahitaezkoa gertatu da praktikan berorren ikerkuntza gogoan izatea, eta eskura izan dugunetik horrelakorik ere jasotzea, berorri buruz dakiguna historia sozialaren argigarri izan daitekeelako ez ezik *corpus*-aren zientzia linguistiko eta filologikoak ere bere historia soziala duela, zientzia ororekin gertatu ohi den gisara. Beraz, bibliografiaren erabiltzailea ez da sobera harrutuko gaien aurkibidean "Hizkuntzalaritza", "Euskalaritza" edo "Hiztegiak" bezalako sarrerak topatzean.

Sinkroniaz diharduten ikerlanen ondoan, badago euskara orokorki bere iraganaren jarioan eta gizartean aurkeztu duenik (Mixelena 1964, Allières 1986³), eta azkenik, ausartzia praktiko pixka batekin historia sozialari orokorrean espreskiago helduta dibulgazio-lana ere egindakorik (esaterako, Intxausti 1990, Xamar 2006). Baina adibide horietatik harago hainbat beste aipu soziolinguistiko ere aurkituko du orrialde hauetara datorrenak.

Hizkuntzen izaeraren gain ideologia sozialak ere jaso izan dira, eta hizkuntzalaritzaren historia emankorra da pentsamolde politiko-linguistikoak eraikitzen, gurean eta bestetan. Hizkuntzaz uste izan dugunak eta jakitunek esan dizkigutenak gizartetik eta gizarterako sortu ziren, eta eztabaida eta gora-behar sozialetarako balio izan zuten beren garaian. Horren nondik norakoa ezagutzeko bibliografarik bada hemen (Juaristi, 1976; Tovar, 1980), eta testu apologistak berak ere eskura ditugu antologia zaindu batean (Madariaga, 2008). Mentalitateen historiarekin eta gizarteko interesekin uztartzen da apologistika hau.

1. 3. Soziologia eta Soziolinguistikatik

Liburu honek gure hizkuntz(ar)en inguruko iker-eremu gazte bat indartzen lagundu nahi du, Euskaltzaindiaren Etxeberri Egitasmoko asmoei jarraituz. Gure artean euskararen historia sozialaz egin diren lanen hainbat albiste bibliografiko biltzen saiatu gara, ikertzaileak eta jakingura den nornahik horretarako lanabes erosoago bat eskueran izan dezan.

Historia soziala bere osoan eta zehazkiago hizkuntzen gizarteko historia ezagutu nahi dituenak alde anitzetara begira jardun behar du, demografia, egitura sozialak edo ekonomia, kultura nahiz ohitura linguistikoak, pentsamoldeak eta literatura, hezkuntza eta erlijioak, zuzenbidea edo erakundeak eta abar aintzakotzat hartuz, alegia.

Horregatik, diziplinartekotasun handiko eremua da hizkuntzen historia hau: hiztungoa bera da lehen protagonista, hiztunek izan dituzten gaitasunak, hizkuntz erabilpen eta ohitura sozialak, gizarte mintzatzailearen eremu geografikoa, hizkuntzei eman zaizkien trataera sozial, juridiko nahiz politikoak, irakaskuntzako hizkuntzekiko legeria, etab. Diziplina ezberdinetako adituek dute hemen lekurik.

Erran gabe doa Fishman-i jarraituz Etxeberri Egitasmorako eman genuen² iker-eremuaz ari garela *Argibide bibliografikoak* honetan ere³:

... gizakia hizkuntzaren erabilzaile arrunta denez —bizkuntza mintzatu, idatzi eta inprimatuarena, esan nahi da— partekatzen dituen portaera-arauz gainerakoekin iraunkorki loturik

² *Euskera*, 52, 2007, 239-267.

³ FishMAN, J. (1979 [1971]): *Sociología del lenguaje*. Madrid: Ediciones Cátedra. 33.

dago. Hizkuntzaren soziologiak giza portaeraren bi alde horien arteko elkar-eragina aztertzen du: hizkuntzaren erabilerarena eta portaeraren antolaera sozialarena. Laburki esanda, hizkuntz jokaeraren antolamendu sozialarekin harremanetan dauden gaien eremuaz arduratzen da hizkuntzaren soziologia, baina ez bakarrik hizkuntzaren berezko erabilerari buruzkoetz, baita hizkuntzarekiko eta beronen erabiltzaileekiko jarrera eta jokabide esplizituez ere.

Bibliografia honetan, hiztunganaren gizartea bere osotasunean begiratu nahi izan dugu, hizkuntzarena gogoan dugula (mintzamenaren biziera soziala, alegia) baina iraganeko eta oraingo euskaldungoak gizarteko bere bizitza orokorrean ere lekutzen ditugula.

Ikusiko denez, euskararen historia da gure aztergai nagusia, aldakortasunean doan historia. Hitztunganaren gain aldakortasun hori gertakari eraginkorra izan da, onerako nahiz kalterako, betiere belaun bakoitzarentzat zerbait bizia. Bestalde, hizkuntzekin harremanetan bizi izan den hizkuntza da gurea ere; inguruko eta barruko erdal hiztunak aldatuz joan zaizkio, batzuetan etorri eta desagertu edo joan egin dira horiek, bestetan gure inguru eta barruan luzaro geratu zaizkigu.

Horrek guztiak bere oihartzuna du hemen aurkituko den bibliografian, gogoeta eta idazlan anitz sortu baitu historia bizi horrek. Gaur egun EHSaz eskueran ditugun idazlan argitaratuek ez dute aditua asebeteko, baina horiek dira, hain zuzen, gure egungo iker-abiapuntu saihestezina. Eta berau eskuragarriagoa izan dadin dator argitalpen hau, dagoena ere sakabanatuegia baitago.

Hizkuntzalaritza diakronikoaren eta sozialaren ekarpenak aurrean ditugula baina horra mugatu gabe, antologia bibliografiko honek bere analisi-kontzeptuak Soziologia eta Soziolinguistikatik hartu behar ditu, halabeharrez. Hortaz, zientzia horrekiko sarrera-bibliografia ere jaso nahi izan dugu, bere azalpen teoriko orokorrak ezagutzeko, lehenengo (Weinreich 1953, Fishman 1972, Hymes 1974, Fennell 2001, Mesthrie 2001), eta euskarari buruzko Soziolinguistika-ikerlanek zer eman duten jakiteko ondoren (batez ere Siadeco/Larrañaga 1975etik aitzina, Amorrortu 2003, Eritze 1997, Baxok 1999, Txillardeggi 2004, *Bat* aldizkaria, etab.). Ez dago denak aipatu beharrik, zerrendan eta aurkibidean daude eta.

Hizkuntzaren historia sozialak, gizartetik bertatik ongi ulertu ahal izateko, nahitaezkoa du hizkuntzarekiko zuzenekoak bakarrik biltzen ibili gabe, gizarteko itzulinguru zabalagoa ere aintzakotzat hartzea (historia orokorra, alegia), eta kezka hori nabari ageri da gura zerrenda honetan; horregatik jaso ditugu ekonomia, eliza edo garapen eta gatazka sozialen albisteak ematen dituzten erreferentziak, adibidez. Ikertzaileak asmatu beharko du eskaintzen diogunetik zertaz eta nola balia, eta eskueran jarri dioguna nola osa: beraren eta gure elkarren arteko lankidetzak ez luke hori gutxi lagunduko, hemen zer falta zaigun eta hau zertan hobe dezakegun esaten badigu.

1. 4. *Historiaren barian*

Autore-zerrendan eta are ageriago gaien aurkibidean ikusiko da garai edo une jakin nagusienei dagokien iker-produkzioa, zenbait sarrera aberatsagotan metaturik.

Hasteko, Historiaurreak beti izan du erakarmenik, eta proto-euskara aipatu izan da holakoetan (Mitxelena 1966, Tovar 1966, Lakarra 1996, 2006, 2008). Horrekin bateratsu, euskararen jatorriarekikoak etengabe berrikusi eta berresan dira. XVI-XIX.etan hedatutako zenbait ideia eta galderak bere lorratza utzi zuen bibliografian, eta beste gisa batean orduan idatzitakoaz XX.ean ere sortu du idazlan eta libururik (Zubiaur 1990, adibidez).

Jatorriaren bila, eusko-iberismoa iraupen handiko hipotesia izan da, eta etxeok ez ezik kanpokoek ere suharki defendatu dutena; ondorioz, idazlan ugari utzi du iker-lerro horrek. Ondorioz, ahaleginik franko egin da Iberia eta iberiarrak ezagutu edo iberiera irakurri eta ulertu nahirik, eta horretan aurrera egin ahala euskararekiko kidetasunak begiratu izan dira. Horretan, eskola zaharreko euskal apologistek jarri zuten grinarik, baina, gero, izen handiak daude tarteko: Humboldt (1821), Schulten (1959) edo Caro Baroja (1979, 1988) hurbilagoak ditugu.

Iberieraren aztarnak *Monumenta* batean bildu zizkigun Hübner-ek (1893), eta gaiari buruzko kezka ez da isildu, hainbat ikerlan eta saiok erakusten duenez (Mitxelena 1952, Blázquez 1971, Mitxelena 1973, Orotz 1976 eta 1981, Tovar 1987, Anderson 1993).

Hurrengo une historikoari edo ondoko geografiari begira, lehen indoeuroparak eta zeltak aurkezten dizkigute ikerlanek. Gerra-aurretik hasi eta ondoren erbestetik, Bosch Gimpera katalana saiatu zen euskaldunak inguruko herrien artean izandako lekuaz argitasun berriak ematen (1923, 1960), eta zorretan gaude beste hainbat ikertzaileekin, berezikiago 1960-etako lanetatik hona (Maluquer 1966 edo 1971, Fatás 1978 eta 1985); gainera, mundu zelta berean ezin dira bazter utzi azken ordukoak (Maccone 2001, Almagro Gorbea 1993 nahiz Villar 2005, adibidez).

Oro har, Erroma-aurreko errealitatea ezagutzen 1970eko hamarkadatik hona lortutako jakitateak urrats berri nagusiak eman ditu, erbesteko eta gureko ikerlari jakinei esker, izan ere gaiak interes arretatsua piztu baitu Mendebaldeko hizkuntzen historiaren arduratu direnen artean, betiere Erromaren presentziaren eragina eta berorren aurkako erresistentziak aztertzean. Erromaren distirak liluratu, ikerkuntzak errazegi bigarren mailan isilarazitako herriek protagonismo ezezaguna irabazi dute azken aldian. Ekarpen handia izan da, jakite berriez baliaturik Untermann eta ingurukoek eman digutena (1975-1995). Testuinguru horretan, Erroma-aurreko Iberia edo Hispaniako egoera geo-linguistiko eta etnografikoaz gabiltzala, bereziki azpimarratuko nituzke J. de Hoz-en lanak, eta

zer esanik ez Budapest edo Salamanca-ko Kongresu eta antzekoetan bildutako albiste fidagarrienak. Gure artean, Gorrotxategi-renak (1984ko tesia eta ondo-koak) aipatzea ezinbestekoa da puntu honetara iristean.

Erromatartzea lehenengo eta kristautzea gero, oparo ageri dira orrialde hauetako aipuetan. Erroma edo Greziako idazle klasikoetan Euskal Herriaz eta euskal jendeaz bilatutako argibideak aberastu eta sistematizatuz joan dira, lehenengo hemen aurkituaz esan zutena bilduz eta, berehala, erromatartzeko prozesuak azalduz. J. M. Blázquez saiatu zen gure herritarren aztarna iturri klasikoetan bilatzen, herriekiko albisteak bildu eta ondoko erromatartze-prozesua argitan jarri (hainbat idazlanen bilduma: 1989).

Aldakuntza sozio-kultural horren barruan, latinaren presentzia erabakigarria gertatu zen, noski, berezikiago guri hemen interesatzen zaigun alorrean: harreman hartatik modernotuta atera zen euskara, arrisku larria zenetik baliabide berriak hartu baitzituen. Euskara/latinen ukipen-historia bere hastapen eta prozesuan gertakari soziala da (soziala, politikoa eta kulturala), bete-bete gure galdera eta kezken artean dagoen epe historikoa da erromatartze-latintzeena.

Alor horretako ikertzaileen izen handiak ez dira gutxi, J. Caro Baroja-gandik hasita nahi bada (1945), Albertos (1972), Gz. de Durana (1981), edo L. M. Muxika (1982) tartean direla, esate baterako. Latin eta euskararen arteko harreman-historiaz ongi etorriko da, jakite zabal eta kritikoa batek eskain dezakeen ekarpena ezagutzea (Larrañaga Elortza 2007).

Kristautzearen prozesuak euskal historiografian eztabaida luzea izan du, eta gaur egun horretaz zerbait esan behar denean, nahitaezkoa suertatzen da iragan historiografiko horretaz premiazko albisteak biltzea. Elizaren historiatik eskaintako Risco (1779), García Villada (1935), Sotomayor (1979), Goñi Gaztanbide (1979) edo Mañarikua-ren (1981) azalpenen ondoan, Unibertsitate zibiletatik datozkigun ikerlanak dauzkagu, iturri literarioetatik ari direnak (Sayas 1994, Larrañaga Elortza, 1978, 2007) eta arkeologiatik (Azkarate 1987, 1988); hauetako bakoitzak aurkeztu ditu bere iritzi eta arrazoiak, inoiz hizkuntzen arazoari ere begiratuz.

Jakin badakigu, gainera, kristautzeak Mendebaldeko familia latindarra sortu, hedatu eta finkatzen munta ukazina izan zuela. Adibidez, S. Mariner Bigorra-k (1976) argitu nahi izan zizkigun aldakuntza erlijioso-linguistikoa hartako faktore eragileak, eta J. A. Garcia de Cortazar-ek (1972) edo berrikitan R. Jimeno Aranguren-ek (2003-2004) azpimarratu dute kristautasuna nola jabetu zen espazioaz, eta ondorioz, era batera edo bestera, hiztun goen lurraldeetako gizartea birmoldatu. Garrantzizko gertakari geo-sozialen aurrean gaude, bada, latintzean ez ezik erromantzeak jaiotzera doazenean.

Euskal Herri erdiarrotarreko erromantzeen eta berauen euskararekiko zeri-kusiak aztertzen ikerkuntza aberatsa egin da, Rohlf's-engandik hasita nahi bada (1927, 1970), ondoren Mitxelena (1956, 1958) eta Etxenike Elizon-

do-rena (1984) datozela. Eta Pirinio-inguruetako hizkuntza-egoera eta garapenaren historiak arreta handia jaso du hizkuntza-historialarien lanetan. K. Mitxelena behin eta sarri heldu zion gaiari, eta A. Irigoien (1983, 1985-1995) eta R. Zierbidek (1986, 1988, etab.) ekarpen aberatsak eskaini dituzte, mendi-katekoa bertakoa ez ezik beraren hego eta iparraldeko albistek jasotzean, berrikitan gaiak Euskaltzaindiak antolatu duen Biltzarra ahaztu gabe (2009). Pirinioak maiz agertuko dira hemengo gure bibliografian.

Inguruko hizkuntzak idatziz ere eman zirenetik, euskarak (arrunki idatziz gabeak) noizbehinka zerbait ahoskatu du, Donemiliagan bezala Euskal Herriko beste Monasterioetan ere. Lakarraren 1957ko Donostiako hitzaldi-atari estimatu hartatik hona historialari eta hizkuntzalari anitz arduratu da, iturri zaharrak bilatu eta argitara ematen.

Erromantzeekiko harremana eta, orokorrean, Erdi Aroaren mintzamina iturri argitara berriekin zinez aberastu da azken mende-erdian, Monasterioetako testuak jasotzean: Iratxe (J. M. Lakarra 1965, Fortún 1992), San Juan de la Peña eta Donemiliaga (Ubieto 1962, 1976), Irantzu (Jimeno Jurio, 2010), Leire (Martín Duque 1983), etab. Monasterioetako iturrietatik at, Eusko Ikaskuntzaren *Fuentes Medievales*, noski, beste iturri-zerbitzu ona izaten ari da orain, nahiz eta lehen emanaldi bibliografiko honetan bilduma osoa sartzeko asmorik izan ez dugun.

“Antzinatea” edo “Erdi Aroa” sarrerek, bere ugaritasunean, bi gauza bederen iradokitzen digute: iker-eremu horietan azken hiruzpalau hamarkadek eskainitako argitasun berria, alde batetik, eta egoera historikoen aldakortasuna, bestetik. Horrek guztiak euskararen *continuum* bikoitza jartzen digu argitan, espazioarena eta denborarena.

Hor, onomastikak lekurik behinena du Erdi Aroaz diharduten ikerlanetan, toki-izenak alde batetik (Corona 1947, Coromines 1965 eta 1972, Caro Baroja 1980-1982, Zierbide 1980, Irigoien 1986 eta 1990, Orpustan 1990, Libano 1995-1999, Gómez Villar 2005 eta abar) eta pertsona-izenak bestetik (Caro Baroja 1949, Irigoien 1983, 1985, 1993, 1995, Ramírez 1988, Sainz 2003 eta abar), lexikoa ere tartean dela (Frago 1977, Zierbide 1979, Artzamendi 1985, Orpustan 1987 eta 1999 eta abar).

Bibliografia biltzean eta mendeak ibili ahala, toponomastikaren informazio-ekarpena gero eta esanguratsuagoa ageri da historia orokorra eta hizkuntzarena ere ulertzeko, ahopean errealitate iraunkor eta errotuaz ari baitzaigu hitz egiten. Asmoa genuen baino idazlan toponomastiko gehiago metatu da orrialde hauetan, izan ere badirudi egungo normalizazio-premiekin ere sustatu dutela eremu honetako ikerkuntza.

Toponimia eta berorren geografia ez dira, noski, soziologia, baina bai zeharbidez hitzun-gizarte jakin baten bizilekua deskriba dezaketena, eta gainerako historia-moldeekin batera (demografia, egitura sozialak, ohitura eta abarrekin, alegia) une jakineko espazio-mugaketa eta gehiago ere ezagutzeko lehen datua.

Nahiz eta bide batez bezala izan, arrazoi horregatik aintzakotzat hartu dugu toponimia lehen emanaldi honetatik bertatik. Dena den, esan beharra dago oraingo lehen bilketak ez duela zaindu toponimiaren hau sistematikoki, eta idazlan-bilketa aberatsa geratu dela egiteko. Gerora erabaki beharko da zein lehentasun eman leku-izendegiaren honi, EHSerako bibliografia honetan.

Euskararen iraganari begira, Aro Moderno-Garaikideek dute, noski, lekurik handiena gure argitalpenetan, eta sarrera orokorrenetatik sartuta aurkitu ahal izango dira beroriek. Esateko, “Demografia”, “Eliza”, “Erakundeak”, “Euskalkiak”, “Euskara batua”, “Geografia”, “Gizartea”, “Legeak” edo “Plangintza” sarrera-erregistroetan batez ere bi Aro hauei buruzko albisteak aurkitu ahal izango dira. Era berean, euskal Herrialdeei edo pertsonaia historikoei eman zaizkien gai-sarrera orokorretan idazlan jakingarririk ez zaio faltako irakurlari: “Araba”, “Bizkaia”, “Iparraldea”, adibidez. Nafarroak bereziki ikertzaile emankorrek izan ditu (A. Irigarai, Jimeno Jurio, Salaberri, etab.), berriagoak ditugun Urmeneta 1997 edo Eritze 1997 baztertu gabe.

Ernazimentuan, baina XVIII.etik hona batik bat, eta gaur egun ere, euskaldungoaren errealitate eta egoerarekin batera, hizkuntzarekiko pentsaera, jarra eta jokabideen deskribapenen historia bera ere ez da gurean interes txikikoa. Apologistena aipatu dugu, baina orain batez ere beste bi begira-puntu ekar daitezke hona: hizkuntzalarien tipologia eta sailkapen-lanetan euskarari eman izan zaion aparteko lekuarena (Ruhlen 1997, Lakarra 1999) eta teoria horietatik urrun bertoko pentsamoldeen historia (euskara batua, normalizazioa, egitarau politikoak, praktika juridikoa, etab.: Eritze 1996 eta 2001, adibidez). “Kidetasunak”, “Tipologia” edo “Sailkapena” sarreretan ikus daiteke bildu duguna, baina esan behar da, hizkuntzaren alde soziolinguistikoaren bila genbiltzalako, ez dela arreta erneagorik jarri alor horietakoak osorik biltzen.

1.5. Euskararen historia sozialaz (EHS)

Aspaldixotik abian dago, noski, metodologia eta ideologia ezberdinez landutako Artearen historia soziala, eta horren barruan Literaturarena ere; besteak beste, berorren lorratzak bibliografia honetan ere ageri dira (Hauser-ek 1951n ingelesez emana: *The Social History of Art*, eta berehala hainbat hizkuntzatan).

Horrelako lanekin bateratsu, Soziolinguistikaren eztena behar izan dugu Hizkuntzen Historia egun-argi akademikora ekartzeko, hein batean soziologoek berek ere historiaren premia sentitu dutelako, eta hizkuntzez arduratuek eta historialariek berorien alde soziala argiago ikusi ahal izan dutelako.

HHSak bere teorialariak ditu hemen (Burke eta Porter 1987 eta 1991, adibidez), eta ikustekoa da nola datorren indar berriz hizkuntza hegemonikoen historia soziolinguistikoa (Dillard 1985 USAko ingeleserako); hizkuntzalaritzatik ere lehendik bere ekarpen sozialak aurreratuta zituztenek (Lape-

sa 1986, Menéndez Pidal 2005), azken urteetan aurkitu dute jarraipen esplizituagorik (Moreno 2005, Penintsulako hizkuntzetarako, edo lankidez inguraturata, frantseserako A. Rey 2007k aurkeztu diguna).

Europako hizkuntza minorizatuek ere aukeraren bat izan dute historia sozialari ekiteko, eta hemen gaiaz bilketa bibliografiko handirik egin ez badugu ere, aipa daiteke galeserari buruzko obra zabala, azken bi mendeez ari dena eta agian guretzat interesik franko duena (Askoren artean 1998-2001).

Gurean, esan dut, jada 1970eko hamarkadan, euskararen alde historiko-sozialak merezi izan zuen argitalpenik, eta azpimarratu behar handirik ez dute aldizkarietako lanek: ugariak dira, eta liburu honetako gaien aurkibide-tik bila daitezke. Soziolinguistika eta historia bata bestearekin lotu dutenen artean eman daiteke *Euskararen Liburu Zuria* hartako zenbait kapitulu (1978) eta argiago Eritze 1997.

Historia, hizkuntza eta gizartea, hirurak batera, lotzen hastea kosta egin da, baina bidea urratzen hasita gaude. Aldizkari (Jimeno Aranguren 2005) edo ikerlari jakinen baten obran (Odriozola 1992-1993) dauden ekarpen historiko-soziolinguistikoak argitan jarri dira dagoeneko, eta lan horrek jarraitu egin beharko du, noski, beste aldizkari eta autore nagusien lanen berri-emanen. Bestalde, normalizazio-ahaleginek eta berorri buruzko gogoetak edo aldeko eta aurkako gogo eta iritziek egunkarrietan (hemengo eta erbestekoe-tan) langai asko eman dute; hemerroteketako bilaketari, ordea, ez diogu heldu orrialde hauetan, eta lan gaitza dagoke hor egiteko.

Lehenengo emanaldi honetako bilketan ez dugu izan osoak izateko asmo-rik, lan-epe jakin baten mugetan ibili baikara, eta, laguntza onik falta izan ez bazaigu ere, ezin izan dugu nahiko genukeen guztietara iritsi. Idazlan-katalogo honen irakurketak berak bilaketa berrietarako hainbat iradokizun pizten digu, eta zer esanik ez, are argiago oraindik, bigarren ataleko gaien aurkibide alfabetikoak.

Idazlanen zerrenda hau aski urrutitik dator osatuz, egileak azken hiru hamarkadetan jasotako erreferentzietatik lehenengo, han eta hemen begiratu-tako katalogoetatik geroago, biblioteka jakin batzuetatik ondoren (Azkue Biblioteka edo HABEKotik, adibidez) eta, oro har, Euskal Herriko liburutegi-sarean hautatu ditugunetatik.

2. Argitalpenak, liburutegiak, bilaketa

EHSeko ikerlan eta kontsultak erraztu nahirik gabiltzala, bibliografiaren hau luzarorako eginkizun bezala ikusten dugu; hasteko, eskueran egon zitekeen dena ez baitugu bildu, eta edozein eratan ere, argitalpen berriak agertu eta liburutegietaratu ahala idazlan-albiste berriak jaso beharra egongo baita.

Oraingoz, aldizkarietan lan mugatua egin dugu, orokorrean edozeinetatik probetxuzko zenbait idazlanen albistea jaso dugu, eta bigarren, osorik begirata ondoko aldizkarietatik historia soziolinguistikorako baliagarriak uste izan ditugun idazlanak hartu ditugu aintzakotzat: ASJU, BAP, *Bat*, BSS, BMB, *Euskera*, EI-OIHENART, FVL, *Jakin*, *Karmel*, *Lapurdum*, *Boletín Sancho el Sabio*, *Príncipe de Viana*, RIEV/RIEB eta *Uztaro*⁴. Etorkizunean osatzeko lana geratzen zaigu, beraz, aldizkarien munduan (Ruiz de Gauna 1991, Díaz Noci 1994).

Euskal Herriko Artxiboei buruz lehen erreferentzia batzuk eman ditugu, ez gehiago, nahiz eta euskararen iragan soziala beroriek ezagutu eta arakatu egin beharko den (Muxika 1908, Etxegarai 1919, Andres-Gallego 1974 eta 1978, Sales 1986 eta 2007, Askoren artean 1978, Garmendia 1986, Aginagalde 1986-1988, Zubizarreta 2004 edo Rilova 2006). Honek berdin balio du Eliz eta Herri-Artxiboetarako, berdin Herrialdeetako nagusiez eta tokian tokikoez, pribatu eta publikoez.

Hizkuntzaren bizitzan erakundeek, egitura sozialak eta oro har gizarteak duten garrantziaz jabetuta, horri guztiari bere lekua aitortu zaio hemengo bibliografia hobestean, baina ez dugu guztiz albora utzi gizabanako herritarren protagonismoa. Hala ere, biografien bilaketa sistematikorik egin gabe, salbuespen bat egin dugu “Bidegileak” bildumarekin (E. Jaurlaritza), batez ere XX. mendez argitasun berri ugariak dakartzalako (hizkuntzaren bizitza sozialarekin zerikusia izan zuten pertsonaiak daude bilduta, euskal herrialde eta ofizio ezberdinetakoak, eta oro har XX. mendeko euskaltzaletasunaren lekukoak daude bertan).

Horrekin batera esan behar da, ordea, liburu biografiko beregainak aleka jaso ditugula (Etxebarria 1990 eta 1993, Onaindia 1988, Larreko 1993, Irigoien 1976, P. Irizar 2001, Iratzeder 1998, Etxenagusia 2003, etab. dira horren adibide adierazgarrienak). Azkenik, euskalgintzako lekukoen elkarrizketa landuagoak (ikus *Senex* edo *Jakin*-en agertutakoak) ez ditugu oraingoz bildu.

Hona heltzean, gogorarazi behar da, gainera, gutun-bildumek EHSerako izan dezaketen garrantzia. Euskalgintzako pertsonaia giltzarrien gutuneria, bere osotasunean bildu izan den kasuetan, albistegi kultural aberatsa gertatu ohi da hori (Orixe 2006, Lizardi 2007a, Zaitegi 2007, Mirande 1995, Aresti 1986, etab.), eta era bertsuan baita aldizkarietan atera izan diren gutun-multzoak ere; hauetako lehen uzta bilduta dago (Bonaparte 1908, Humboldt 1934, Azkue/Mendiatxa 1957, S. Muxika/López-Mendizabal 1983, Azkue/Broussain 1986, Etxepare/Lafitte 1991, etab.). Zereginik geratzen da oraindik alor honetan ere.

⁴ Laburdurak argituz: ASJU = *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo”*, BAP = *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, BSS = *Boletín de Sancho el Sabio*, BMB = *Bulletin du Musée Basque, Euskera*, EI-OIHENART = *Eusko Ikaskuntza-Cuadernos Oihenart*, FVL = *Fontes Linguae Vasconum*, RIEV/RIEB = *Revista Internacional de Estudios Vascos / Revue Internationale des Études Basques*.

Eta gatozen argitalpenetatik, berorien jabe eta zaintzaileak diren Liburutegietara. EHSean ikertu nahi duenak ez ditu aurkituko guztietan kalitate eta kopuru bereko baliabideak. Oro har, Hizkuntzen Historia Soziala (HHS) ez da izan orain arte liburuzainek arretaz zaindu duten eremua; hala ere, une honetan hierarkiaren bat jarri nahi balitz, zera esan daiteke: alde dezenterekin, HABEren Donostiako liburutegia da gure eremu honetan daukagun bibliotekarik hornituena, eta gainerakoentzat lehen eredu hobegarria izan daitekeena.

Beste gisa batean, Gasteizko Sancho el Sabio-k lan ederra egin du, eta ondoren letozke Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, Bizkai eta Gipuzkoako Aldundien liburutegiak, (zoritxarrez, Baionako Erakustokikoa nahi bezala arakatzerik ez dugu izan, baina helduko zaio horri ere bere garaian). Nafarroako Liburutegi Nagusian gure eremuaz deus gutxi dago.

Azpirarra dezagun eliz biblioteka handien zeresan historikoa: Baionar-Larresoro (XVIII-XX. mendeak), alde batetik, eta Gasteizko Seminariokoa (1862-1950...), Derioko orokorra eta Labayrurena, eta Donostiako diozesiarena (1950...) bestetik; horiei Institutu erlijiosoenak gehitu behar zaizkie, beren balio ezberdinekin: jesulagunen Loiola, frantziskotarren Arantzazu, beneditarren Lazkao eta Beloke, karmeldarren Begoña, etab. Guztiek bildu izan dute, gutxi-asko, euskaltzaletasunaren tradizio bibliografikoa, eta herentzia aipagarriren bat ere, Zarauzko misiolarienetik edo Loiolako Larramendi-*renetik* hasita (Altuna 1984, Iturriaga 1992).

Hutsune nabariak ikusi ditugu: gertuko beste eremuetakoarekin alderatuz. Adibidez, Hizkuntzalaritza eta Filologiako funtsen aberastasunetik urrun daude HHSari lagunduko lioketen biblioteka-baliabideak, eta biblioteka-funts historiografikoek sarrienik ez dituzte apenas begiratu izan HHSa eta EHSa. Dakizkigun arrazoiengatik, Unibertsitateetan gertatzen da hori, lehenik, eta gainerako liburutegietan gero. Egunen batean biblioteka bakoitzak osatu ahal izango du, premien eta ahalbideen neurrian, sail historiko-soziolinguistikoa. Nork daki *Argibide bibliografikoak* honek ez ote duen zeregin horretan lagunduko.

Idazlanen bilatzailearentzat liburuek badute bere geografia ere, bibliotekatan banatuta baitaude, hiri eta liburutegi jakinetan gordeta, eta erraztasun ero-soago edo gutxiagoz eskura daitezkeela. Teknologiak, bere aurrerapen bizkorrekin ere, ez ditu idazlan gehienak ikertzailearen lan-bulegora ekarri oraindik, haien bila joan egin behar da. Horregatik, “gure” Liburutegiak aukeratzean, Herrialde bakoitzeko premiak gogoan izan ditugu, eta saiatu gara bakoitzetik erreferentzia eskuragarrienak aurkezten. Hala ere, dauden tokian daude idazlanak, edo, okerrago, ez daudenean ez daude inon.

EAEko hiru Herrialdeetan erosotasun hobeak ikusi ditugu, gure eremuan Nafarroa eskas dabil, eta Iparraldean ezin izan dugu oraingoz nahi bezala arakatu. Bestelakorik gertatu da ondoko Liburutegi hauekin:

LIBURUTEGIETAKO ERREFERENTZI KOPURUAK

<i>Laburd.</i>	<i>Liburutegiak</i>	<i>Kopuruak</i>
MA-02	Biblioteca Nacional de España	1992
BI-03	Azkue Biblioteka (Euskaltzaindia)	1932
GI-01	KM Kulturunea (Gipuzkoako Aldundia)	1908
GI-05	Deustuko Unibertsitatea	1889
AR-08	Sancho el Sabio	1665
BI-01	Bizkaiko Foru Liburutegia	1630
BI-09	Labayru Ikastegia	1611
GI-19	UPV/EHU	1582
GI-03	HABE	1560
BI-02	Bilboko Liburutegiak	1318
PA-05	Bibliothèque Nationale de France	1287
AR-01	Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia	1239
NA-01	Nafarroako Liburutegi Nagusia	1230
AR-I3	Gasteizko Liburutegi Publikoa (Foru Aldundia)	1207
GI-18	Lazkaoko Beditarrak	1177
NA-04	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPN)	1092
GI-02	Donostiako Udal Liburutegiak	1060
AR-03	Ivap-Haee (Araba)	940
LA-03	Unibertsitate-Ikasketak (Paue/Baiona)	626
AR-06	Gasteizko Udal Liburutegiak	612
NA-03	Iruñeko Udal Liburutegia	441
LA-01	Baionako Udal Liburutegia	383
GI-17	Loiolako jesulagunak	64
GI-16	Arantzazuko frantziskotarrak	33
AR-09	Gasteizko Seminarioa	17
<i>Biblioteketan aurkitutako liburu-erreferentzien kopuru osoa</i>		28.495

Laukiak oharren bat edo beste behar du. Horko zenbakiak liburuena dira (aldizkarietako artikuluei dagozkienak zenbatu gabe, beraz), eta emaitzarik gabe geratu diren kontsulta edo bilaketak ere ez dira hor agertzen: 28.495 kopuruak liburutegietan liburuak beste horrenbeste aldiz aurkitu direla esan nahi du (biblioteka bakoitzean errepika daitezkeen edizio ezberdinak aintzartat hartzeke).

Hortaz, biblioteka bakoitzetik gurerako hobetsi ditugunak dira idazlan-kopuru horiek (Biblioteca Nacional 1992...); baina kasu guztietan eskuartean darabilgun historia soziolinguistikoarekiko hurbiltasuna eta bakoitzaren horrelako ekarpena ez dira ageri estatistika horietan. Gai-hurbiltasn hori nabariki handiena HABEren liburutegikoa da, nahiz eta, adibidez, kopuruz beste zazpi berorren aurretik ageri diren zifra orokorretan; hain zuzen, beste zazpi horiek dira euskal historia, geografia eta abarreko eremu orokorragoetatik eskaintza zabalagoa lehendik ere bazutenak, eremu historiko-soziolinguistikoan tamaina bera ematen ez duten arren.

Azken orduan tartekatuta ditugun gutxi batzuk aintzakotzat hartu gabe eta 4.425 sarrera-erregistroetara mugatzen garelara, ondoko datuak azpimarra daitezke: esandako horietatik 1.642 liburuak dira, 1.955 artikulua eta 828 jardunaldietako konferentziak edo liburu-kapituluak.

Esan bezala, lorpenak eta mugak ditu zerrenda honek, eta hurrengo emaldietan joan beharko da dena osatu eta hobetzen.

3. Erregistro-sarreretako edukiak

Zenbatuta doazen erregistro-sarreretan antolatu dira bakoitzari dagozkie albisteak. Erregistro bakoitzak hiru albiste-eremu ditu: 1) Erreferentzia bakoitzaren xehetasun bibliografikoak, 2) Argitalpenaren gordelekuak (aipagarri ditugun Bibliotekak), eta 3) Internet bidez testuetara iristeko estekak.

Xehetasun bibliografikoak lau albiste ditu arrunki aurkituko direnak: egilearen abizen-izenak, argitaraldiaren urtea, idazlanaren izenburua/azpi-izenburua, argitara-lekua eta argitaletxea. Batzuetan argibide bibliografiko hauek konplexuagoak izan daitezke, liburu ordezkari bateko artikulua ari delako, agian jakineko liburu baten atal sinatua delako, etab.

Oro har, esan behar da hemengo zerrenda honetan ageri den informazioa, liburu honetarako laburtu eta egokitua dela, eta berorren jatorria *JabRef* programaz garatutakoa gure datu-basean dagoela osorik. Bere garaiaren erabakiko da datu-base horretatik zer eta nolako informazioa eskainiko den Internet-en bidez.

Liburutegiak. Argitalpenek Euskal Herrian eta erbesteko kasu jakinetan ere dituzten gordelekuak ezagutzeko premia zela uste izan dugu. Praktikan, zer bila bezain muntazkoa izan daiteke non bila.

Zerrenda honek ez du geratu nahi izan, besterik gabe, idazlan baten aipua emanda. Horregatik, liburutegietara sartzen ahalegindu gara, ikertzaile eta jakingura denak nora jo behar duen jakin dezan.

Egia esan, bibliotekak gero eta irekiagoak daude urte batzuetatik hona, harrera pertsonalerako betiko beren ordutegiak, baina, aldi berean, kasu

askotan egun osoan irekita, Internet bidez galderak eta kontsultak jaso eta erantzuteko, eta erosotasun berriz, gainera, katalogo bateratu digitalizatuen bidez, halakorik dagoenetan. Erraztasun handia izan da hori guretzat.

Ez dugu izan liburutegi guztietara iristeko asmorik, eta ez gara sartu hautatu ditugunetan bakoitzarekiko “gure” balioespen orokor eta bereziturik egingen. Hori baino zerbait apalagoa izan da gure lana: osatuz gindoazen idazlanzerrenda halako edo bestelako bibliotekatan ba ote zegoen jakin nahi izan dugu. Bide batez zera gertatu da: liburutegi bakoitzak bere funtsean historia soziolinguistikoari buruz duen altxorra zein den edo ez den hauteman ahal izan dugula, betiere hein batean, noski, laginezko test baten bidez, eta ez katalogo osoen azterketen bitartez. Bildurik genituen erregistroen bila-lekua topatzen saiatu gara, gure zerrendari balio praktiko hori gehitzeko.

Sarrera-erregistro bakoitzean, Biblioteken laburdurak lerro berean eta elkarren ondoan doaz, baina ez alfabetikoki emanak. (Ik., laburduren laukian, zaindu dugun ordena finkoa); aldizkarietako artikulua izan ezik, zerrenda osoa dago informazio honetaz hornituta.

Internetarako estekak. Liburu inprimatuan bertan lozorroan geratuko den informazioa ez, baizik eta beste hainbat lekutarako irtenbideak eskainiko dituen katalogoa burutu nahi izan dugu orrialde hauetan.

Teknologia berriak liburuen munduan halako indarrez sartzen ari diren honetan, Euskal Herriko garapen “internetarrak” gogoan hartu ditugu, eskaintzen dituzten erosotasunengatik eta gero eta azkarrago hedatuz eta aberastuz joango direlakoan. Eta datu jakingarria, eman duen lanagatik ere: dagoeneko, 1.787 *url*-esteka eskuratzea lortu da, beste hainbat sarrera-erregistrotarako. Esteka duten liburu eta idazlanek eskueran jartzen digute denona izan daitekeen HHS eta EHSerako liburutegia: eskaneatuta daude eta Internet bidez irakurgarriak dira (batzuetan, inprimatu ere egin daitezke).

Bestelako xebetahunak. Liburuko atalik handiena idazle eta obrei dagokiena da, eta horren gain eta inguruan eman dugu gainerakoa.

Autoreen izen-abizenek bere zailtasunak izan dituzte, arrazoi ezberdinegatik. Hasteko, betidanik dakigun zerbait: euskal izen-abizenak, euskaldunak izanik ere, erdaraz eman ohi izan dira gure artean, inoiz idazle berak ez ditu izen-abizen horiek beti era berean idatzi (batzuetan erdal grafiaz, bestetan euskarazkoan), osatu ere ez ditu beti berdin osatu (inoiz abizen bakarrez, gutxiagotan bi deituraz). Horrelako egoerak guri ez ezik Bibliotekei ere eragozpenak sortu dizkie.

Arau orokor onartua da lan bibliografikoetan erreferentzia guztiak liburu-erretako barne-azaletan edo aldizkarietako artikulutituluetan inprimatuta ageri diren zehaztasun berekin ematea. Orrialde hauetatik hasten den ikertzaileak lege onartu horri jarraituz egin beharko du lan.

Hala ere, liburu honek *bilaketa praktikorako tresna* izan nahi du, ez besterik. Eta Euskaltzaindiko lana denez, bere Azkue Bibliotekako arau normalizatuak hobetsi ditugu (arau horien berri jakiteko ikus argibideak: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/67630.pdf>)⁵. Era berean, abizenen euskal idazkera arau-emailea Euskaltzaindiaren *Euskal deituren izendegia*-n edo web-ean begira daiteke: <http://www.euskaltzaindia.net/eoda/deiturak>; <http://www2.euskaltzaindia.net:8080/absys7/abwebp.exe/LLeu-ES/G0>.

Idazle beraren idazlan guztiak sarrera-modu ortografiko bakarrean bildu ditugu: autoreari sarrera ematean, *Mitxelena* beti horrela agertuko da (nahiz eta erdarazko lan inprimatuetan *Michelena* agertu). Izen-abizenen barrutian kasuistika nahasia dago, ortografikoa bezala soziala, baina guk hemen batik bat geurearen erabilgarritasunari begiratu diogu. Beraz, ikertzaileak jakin behar du bilaketarako bidea horrela errazten diogula, baina bere ikerlaneko aipuetarako nahitaezkoa duela liburua edo idazlana jatorrizko idazkeran aurkeztea (adibidez, horretarako bildu dizkiogun estekez baliatuta).

Ohar bedi idazleen ponte-izenak laburduraz eman ditugula, izendapena sobera luzatzen ibili gabe. Inoiz gutxitan, bi idazleri lehen abizena eta izen laburtua berdina suertatu zaizkienean, izen-laburduraren arau horrek iluntasunak sortu dizkigu, eta hori argitzeko bietako bati bigarren abizena gehitu zaio: horrela, “Ugalde, M[artin].” baina “Ugalde Ugalde, M[ikel]”.

Edizio-urtea egile-izenaren ondoren dator beti, nahiz eta aldizkarietako lanetan geroago ere errepikatzen den. Urtearen albiste horri ohar pare bat: oro har, eskuartearen erabili edo topatu dugun argitaraldiaren urtea ematen dugu, baina, berez, horrek ez du esanahi edizio horri balio edo autoritate berezirik aitortzen diogunik (arrazoi praktikoek ere lehentasuna izan dezakete egindako hautapenean). Inoiz edo beste, edizio ezberdinak bertatik bertara ezagutu ahal izan ditugunean, egin dugu hautapen kritikoagorik ere (batez ere edizio ezberdinetako testuetan alde nabarmenen bat topatu dugunean).

Gogoan izan bedi, gure erregistroan emandako edizioa eta urtea ez direla, nahitaez, gero Biblioteka aztertu guztietan ager daitezkeen edizioetakoak: hau da, edizio ezberdinak egon daitezke liburutegi ezberdinetan, eta baita horietako batean ere. Erabiltzaileak zehaztu beharko du lanerako izango duen edizioa zein urtetakoa eta zenbatgarrena duen, eta berrespena aurrean duen estekaren bidez lortuko du.

⁵ Azalpen zabalak ondoko bi lanetan: GARTZIA, P., 1999, “Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK) : euskal deituren sarrera nagusiez : 1999-XII-30”. *Euskera*. 45, 2000-I, 319-342. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49250.pdf>.

GARTZIA, P., 1997, “Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK) : Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetariko bat: Euskaltzaindian irakurria, 97ko azaroaren 28an” in *Euskera*. 42, 1997-3, 615-622. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/49567.pdf>.

Bere esangura historikoagatik edo lehen edizioko urtea aipatzea komeni zenean, kortxete [] artean eman dugu hori. Edizioaren hainbatgarrena adierazteko goi-indizea erabili dugu.

Liburuen tituluak hizki *etzanetan* eman dira, era berean aldizkariak ere; hauetako artikulak eta askoren arteko argitalpenetako atal sinatuen izenburuak kakotxen artean eman ditugu (“xxx”), ondoren datu osagarriak gehituz. Argitalpen-hiri eta herriak, Azkue Bibliotekaren arabera agertzen dira, ondoren argitaletxearen izena doala.

Oraingo emanaldi inprimatuak gutxieneko informazio praktikoa eskaintzen du, eta ez du jasotzen datu-basean bilduta dagoen guztia, eta emanaldi berrietan eskaintza osoagoak egin ahal izango dira, noski. Baina hornitu den datu-basea bera ere, osagarria da, alde askotatik: erregistro bakoitza gehiagora daiteke eta Biblioteka berriak aztertu, lehenengo Euskal Herrikoak eta gero atzerrikoak.

Erregistroen garapen berrien hau da gerorako zeregin handietako bat; bada hortik horretarako eredu onik, urrunago joan gabe galizierari buruz egindakoa, eta bere orokortasunean gure eremua eta beste hainbat besarkatu duen arren, gurerako eredu bertsua lantzeko iradokigarria iruditu zaiguna (García Gondar 2004).

Hau guztia, osagarri berriak ekarrita, gisa ezberdinetan aberats daiteke: idazlanen laburpen eta kritikak jasoz, autoreak ezagutzera emanez, editoreen azalpenak ekarriz, azalak edo aurkibideak eskaneatuz (HABEK badu honetan aurreratutako lanik); oro har, harremanetarako bideak iradokiz.

4. Gaian aurkibidea

Liburu-zerrendan dauden milaka sarrera horietako bakoitza bizpahiru edo lau aldiz geratu da jasota aurkibidean, lan-titulu bakoitzak iradokitzen zituen bilaketak aldez aurretik ikusten edo “asmatzen” ahalegindu ondoren, eta, bertatik bertaragoko ezagutzarik genuenean, idazlan bakoitzeko testu ezagunetik abiatuta.

Gaien aurkibidea da, esan bezala, idazlan-zerrenda honetarako sarrera erosoak. Zenbaki bibliografiko bakoitzak hainbat kontzeptu-sarbide ditu aurkibidean. Adibidez, “Uztaritzeko euskalkia P. Lafitte-ren gutunetan” balizko idazlanak ondoko sarrera-erregistroak izan litzake, gutxienez: “Uztaritze”, “Euskalkiak”, “Lafitte” eta “Gutunak”. Edo Artaxoako hizkuntzei buruzko idazlana “Nafarroa”, “Artaxoa”, “Euskara”, “Erromantzea”, “Erdi Aroa”, “Toponimia” nahiz “Agiriak” aurkibide-sarreretan topa daiteke aipatuta. Hala ere, kontzeptuen gurutzaketan urrunegi ez joatearren, neurritsu ibili gara, eta, gehienetan, hiruzpalautara mugatu. Hori esanda, bistan dago liburu-

egile honen subjektibotasunak eta ezagutza mugatuek bere lekua izan dutela aurkibidea eratzean. Ezinbestean.

Garbi jakin behar da erregistro bereko bizpahiru iradokizunek ez dutela agortzen, hurrik eman ere, eskuartean ditugun idazlanetako ideia-altxorra. Ikertzaileak berak osatu beharko du eskaintzen dugunetik aurrerako bilaketa (erregistro bakoitzaren barruko testu-hautapena, azterketa soziolinguistikoa, analisi historikoa eta, oro har, ikerlanak eskatuko diona).

Kontzeptu bakoitzeko barne-erreferentzia bibliografikoak burutzean saiatu naiz halakoarekin gurutza daitezkeen bestelako sarrerak gogorarazten ere, bilaketak ikusbide zabalagoa izan dezan (adibidez, “Demografia ik. *Gizartea*”, “Euskara batua ik. *Euskalkiak*”, etab.).

Orain-oraingoz eta tamalez, bilaketa historiko-soziolinguistikoko zehatza egiteko modurik ez dut izan, bibliografia honetako testuen ezagutza zuzen eta osoa ere eskueran ez dudalako. Urteak eskatuko ditu horrek, eta lagun antzitzen lankidetzaz egitarautua; bien bitartean, tresna apalagoekin ibili beharko dugu. Etxeberri Egitasmoko metodologia-ereduak eta *Thesaurusak* erakutsiko digute horretarako bidea, eta denon artean ikusi beharko dugu beraien erabilgarritasun praktikoa.

Horra, bada, oraingo aurkibidearen izaera, mugak eta etorkizunerako zeregina.

Aurreko orrialdeetan eman dugu aski adibide, bibliografia honetako urak zein eremu, alor edo sailetan mugitzen diren ikusteko, eta aurkibidearen begiratu patxaroso batek gehiago esango dio orrialde hauetara datorrenari, hemen orain esan dezakedanak baino.

5. Laguntzak eta lankideak

Aurkezten dugun bibliografia hau, gaurko izaerara iritsi aurretik, handik eta hemendik jaso ditugun laguntzak: aholku-emaile onak izan ditugu, une jakinetan lankideak ez dira falta izan, eta, lanaren bigarren epean Euskaltzaindiko bi lankide teknikariren ekarpen baliosa izan dugu, gainera (2009-2010.etan).

Orain lau urte azken ekinaldiari heltzean, bi Bibliotekatatik jaso genituen adituen iradokizunak: Gasteizko Sancho el Sabio-n C. Gómez zuzendariak beso zabalki hartu gintuen, eta berehala, zer esanik ez, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Pruden Gartzia eta Kristina Aranak ere bai (hauei esker sartu ahal izan ginen biblioteka-munduko arazo modernoetan, eta aldi berean Biblioteka horretako lan-arauez jabetu). Geroztik gure ondoan egon dira behar izan ditugun laguntzak emateko.

Denbora aurrera zihoala, HABEko liburutegiari astindu bat emateko aukera izan genuen, Imanol Irizar zuzendariaren eskutik eta Beñat Unanue-ren laguntzaz. Esan dut zein izan den hor aurkitu dugun liburutegiaren balioa. Bestalde, jada sinatuta dago HABEko zerbitzuen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanerako hitzarmena (2009). Liburu honek eta geroko gure emanaldi berriek harremanak indarberrituko dituztelakoan nago, guztion eta EHSaren mesedetan.

Gure fitxategi zaharra eta hainbat libururen erregistroak Rosa García de la Flor andereñoak bildu zituen ordenagailura, beti ere Euskaltzaindiko Informazio eta Komunikazio Taldeak (IKT) eta bertako Alazne Gorrotxategi informatikariak moldatu digun *JabRef* programaz baliatuta eta premiazko formatua emanik. Hori izan zen gure datu-basearen lehen urratsa.

Handik hona Izaskun Etxebeste eta Koro Seguro la Euskaltzaindiko teknikariak izan dira egitasmoaren eguneroko moldatze- eta osatze-lana egin dutenak: Iturri eta erregistro-sarrera ezberdinak hautatu ahala, burutzen ari garen datu-basera ekarri dituzte berorien albiste bibliografikoak. Erreferentziak banan-banan egiaztatu dituzte; horretarako, erreferentziatzko zenbait liburutegi aukeraturen bidez. Sarrera guztietako fitxak (aipaturiko 4.425 edo 4.440 horiek, alegia) bere barne-eremuetan erabat bateratu dituzte (izenburua, autorea, argialetxea, etab.). Bi lankideon esku egon da sarrera-erregistro bakoitzeko liburutegien berri ematea, eta, halakorik zegoenean, Interneterako estekak ere jasotzea. Ordenagailuetako joan-etorri informatikoetatik emaitza inprimaturako kontrol zehatza berek eraman dute.

Esan dut, argitalpen inprimatu honetako sarrera-erregistroetan ageri den baino albistegi zabalagoa dagoela bilduta datu-basean, etorkizunerako albistegi ugaria eta zehatza izateaz gain base horretako kasu bakoitza jakineko informazio-sistema eta eredu baten arabera emanda dago, guztiaren homologagarritasuna bermatuz eta etorkizuneko garapen berrietarako bideak irekita utziz. Datu-base horren fidagarritasuna I. Etxebeste eta K. Seguro lak uzten dute segurtatuta. Zilargin finak izan dira, eta bihoakie nire esker on beroa.

Denek egindakoek aberastasun berria eman diote zerrendari, eta, oro har, aurpegi txukun batekin agertzeko modua. Guztiekin ere zorretan geratzen gara Euskararen Historia Soziala sustatu nahiko genukeenok, eta zergatik ez, euskalari eta euskaltzale guztiok.

Liburuak eskaintzen dituen hautapenen, duen presentaeraren eta datuen doitasunaren azken erantzulea neu naiz, eta alde zuzenetik eskerrak eman nahi dizkiet ondoko emanaldietarako ohar, zuzenketa, kritika eta argibide osagarriak eskainiko dizkigutenei.

Bukatzeko, bakoitzari berea: Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioak lagundu dit liburu hau burutu ahal izateko, eta nire esker ona adierazi nahi diot Joan Zelaia presidente jaunari; Euskaltzaindia da lana azken punturaino

eramateko baldintzak jarri dituen, eta, orain, argitaratzailea. Ohorea da guretzat, EHSerako *Argibide bibliografikoak* beraren babesarekin kaleratzea. Euskaltzaindiko Argitalpen-Batzordeari eta beronen buru eta euskaltzainburu den Andres Urrutia jaunari nire eta guztion esker on zuzena adierazi nahi diegu.

Espero ditugun emaitzak jasotzeko, liburuak legozkiokeen ikertzaile, aditu eta bilatzaileak lehenbailehen aurki ditzala nahiko genuke, Euskararen Historia Sozialak garapen bizkorra izan dezan.

Joseba Intxausti

Donostia, 2010eko ekainaren 30ean